

# Piñu-Goraberak

Anton'ek, mendiko bide-zidor batetik doala, bearrean dagoan adiskide Joxe'kin jotzen dau. Aldatza neketsua dalako edo eguraldi ona naiz txarra dalako; edozer atxakiz, alditxo bat emoteko asmoz, barriketan asten da.

—Egun on, Joxe. Goizetik lanean, e?

—Bai, ba; beti egin bear zeozer, eta gaur, eguraldi ona dalako, mendi au zulotzen asi naz; piñu-landara batzuk negu aurretik sartzeko asmo daukat.

—Baiña, goizegi ezta zulotzeko? Nire ustez, lan orretarako arorik onen negua dozu.

—Ez, oker zagoz orretan, adiskide. Lau au negurako izten ba'da, lan darea larri ta estu ibiltzen da gero, ondo jarteko. Gaiñera, orain egiten diran zuloai obeto geratzen yake euren lurra; aize ta euri geiago artuaz, curen barruetan dagozan irak, zotzak eta otak, errezago usteltzen diralako.

—Ori egia da; baiña emetik eta landarak sartu arte, iru-lau illabete igaroko dira gitxienez, ta orduan bedarrak-eta barriri aurkituko dozuz landatutako gertau dozuzan zuloetan.

—Garrantzi (inportantzi) andirik eztauko orrek; atxurkada bat edo bi emonda kentzen dira bedarrok, eta olan lurra bigun ta gozoago geratzen. Bestetik, piñu-landarak sartzeko egunetararte, eztaukagu orrenbeste illabeterik be: azilla edo zemendia amaitu orduko sartu gura neukez.

—Orren goiz! Nik beti sartu dodaz neguaren erdian edo azkenetan; baiña orren goiz... eztoz uste landarai ondo etorriko yakenik.

—Okar zagoz or ba, Anton.

—Ta?

—Goizetik sartzen diran landarak ur geiago artzen dabe, ta onen bitartez, errezago artu be. Bestetik, neuk diñotzudan aroan ezta ego-aiterik izaten; urtarrillan, barriz, beti ibiltzen yatzu ta naikoa setati; ta au lucrean sartu diran piñu-landarentzat oso kaltegarri dala, zeuk be ondo dakizu. Gaiñera, ba-dau beste alde on edo bentaja bat be piñu-landarak goizetik aldatzek.

—Jakin ete lei?

—Bai, orixe, Anton. Zemendiz aldatu ta ondoren igertzen diran landarak, gerotxuago urtarrillan edo otsaillan, barriri sartu leikez, ta orrela utsune gitxiago ikusiko da mendietan.

—Kontxo, mutil! Au be egi biribilla da, ta ni... konturaku barik orain arte! Beti ikasten da zeozer, eta gaur irakatsi daustazuna ez yat ain errez aiztuko...

—Orduan, orain etxatzu iruditzen, gaurko nire bear au goizegi dagianik, ezta?

—Ez, ba. Ta gaiñera, beste onetariko gauza batzuk itandu bear dautzudan; zuk beti jakiten dozuz, ondoen zelan egin bear diran, baserritarren erregiñak. Baiña orain, belu egin baiño len, azpigarritan noa bai, ta goruntz ekin bear; bestela, eguzkiak laster kiskalduko nau.

Beste barik, alkarri agur eginda, Anton'ek bere bidetik jarraitzen dau, ta Jose'k zulogiñen daragoio.

BASATI

## GIZA-INDARRA

*Asmoa dan Jaunak bere erabagiaz asmoak ditu, bai ta ezerezetik sortu zitun mundu ontako gauzetan ere. Ona oiñarri bat: Berak egin-dako izahien bitartez erne-erazi denakenetik ezer ere ez du berez sortzen, bere elburua irizteko, aurretiaz izatera ekarri zitunak erabilli baidak.*

*Mundua, beraz, zer dala deritzait? Ezin esan aiñako antze edo ertilana: bere al eta indarrak, asieran irazi ta kreatuak noski, eten barik ari dira erne-berritze lanean. Egille mundiak ortan, ondotik heintzat, bere eskua jarri gabe. Ez dute orren barririk. Jainakoak mundua egin zun, gero bere indarrez dabil, Jainko orren ardurape gozatsuan.*

*Gizona zaizu izaki oietako bat, baiña oso berezia. Beste izakiak, beren izateari dagokionez, berai ezarritako legeak bete ta jarraitu bear dituzte, bakoitzak bere saillean, Jainkoaren asmoak osatu dituzen. Gizona, ordea, azke (libre) da, ta lege oiek bete edo bete ez, bere eskuan dago.*

*Ala ere, Jainkoak, gizona azke izan arren, badaki beraren elburuak nola bururatu: alderdi batetik, joera ta erakarpen sendoak jarri ditu gizonagan, onek geienik azpiratu ezin denakenezan; bestetik, Jainkoak berak txit zorrotz galazi du joera ta*

*erakarpen oiek gaizki erabiltzea, au bere asmo gurenen kontrakoa litzake-ta.*

*Munduan dan libururik zarrenak dioskunez, Jainkoak asieran lenengo bikotea sortu zun: gizon ta emakume; oietatik jaioko ziran gero beste gizaki guztiak. Onetarako ezarri zun giza-izatean beste batzuei bizitza emateko indar berezia. Ta miresgarria benetan Jainkoaren lana: gizonak ez du, gizaki berriak sortzean, bere bizi-gaitasunik bat ere galduko; ta, geienetan beñik-bein, sortutako seme-alabak aita bera bezin osoak izango dira.*

*Baiña indar oiek gizonak erabillita bakarrik egiz jantziko dira Jainkoaren asmu ta erabagiak. Gurasoen erne-atsegiña bizia izan arren, seme-alabak ardura, buru-auste, ukapen, adore ta oiñaze asko dituzte beren gain; eta, jakiña, olako ondorendun ezkontza aurrean, okildu egingo lirake gizasemerik asko, ta ortik giza-enda edo erraza amaitzeko arriskua legoke.*

*Jainkoak beraz, gizonik geienak nai-ta-er zuzendu bear zitun ezkontzako bidetik. Orrela egin du, ta ortan bere jakituri ta ontasuna arrigarriri ta osorik agertzen ditu. Gisa orretan jokaturik, bere asmo ta erabagiak eurretiez ezarritako irizten dute, ta gizonarentzat bide batez poztasun osoaren iturri izan.*